

zuen Euskaltzaindiak arlo auxe, ta orduan bezela erabaki da. Apaiz jaunai galdetzea zer bederatziruén bear duten Euskaltzaindiak igofi dezaien. Erabaki au ere Gotzai jaunari itzez-itze egingo zaio.

III.—Gozai jaunari itz egin bear zaio *Santa Infancia* deitzen dan aldirokoa ume euskaldunentzak euskeraz argitaratu bear litzakela.

IV.—Iztegiaren lanetan jaúaitu da, erderazko *ademan* arte. Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik, otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren Gela nagusian, 1928'ko Lotazila'ren 20'an.

Auréko agirian aipatzen diran euskaltzain eta urgazle jaunak batzaraldian bildurik daude, eta, otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak lantxo bat irakuí digu: *Aparición o presencia de la z en la conjugación familiar*. *Zetofek* esate baterako zer oteda z auxe?

II.—Larusket apaiz jauna, berak egin duen oraingoxe lan eder bategatik Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu du.

III.—Iztegiko lanak auératu naiaz, Euskaltzaindiak lan eta lan dagi: bañan alpefikako ekite asko aienatzeko, auxe erabaki da: emendik auéerako lanik nagusienak Ormaetxea jaunak Euskaltzaindiari ekafi dezazkiola, bañan Azkue jaunak lan oietan, esku ta laguntza ipiñi ondoren. Erderazko *Aduana*-arte lan egin da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.
